


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: otsailak 10

JOAN **MIRÓ**

Errealitate absolutua

PARIS • 1920–1945

GUGGENHEIM BILBAO

Joan Miró. Errealitate absolutua *Paris. 1920-1945*

- Data: 2023ko otsailaren 10etik maiatzaren 28ra
 - Komisarioa: Enrique Juncosa
-
- Erakusketak biltzen dituen 25 urteetako ibilbidean margolariak etengabe landu zituen ideia berriak, bere hastapenetako errealismo magikoarekin has eta konstelazio itxuran ageri diren zeinuz osatutako lengoaiarekin buka.
 - Epealdi horretan nabaria da Miró historiaurreko artearekiko zuen interesa; artistak agerian uzten zuen artearen hastapenetara itzultzeko eta haren jatorrizko zentzu espirituala berreskuratzeko nahia.
 - Lehen abangoardien testuinguruan, batez ere dadaismoaren eta surrealismoaren inguruan, garatu zituen berrikuntza formalengatik miretsita, espresionismo abstraktuaren eta arte kontzeptualaren aitzindaritzat ere hartzen da Miró.

Guggenheim Bilbao Museoak *Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945* aurkezten du, XX. mendeko artista gailenetako batek 1920 eta 1945 urteen artean egindako ibilbidea aztertzen duen erakusketa. Miróren obraren funtsezko aldi hori Parisera lehenengo bidaia egin zuenean hasi zen —Paris giltzarri izan zen bere obran eta bere biografian—, eta *Konstelazioak* (*Constellations*, 1940–41) egin ondoren, eta urte batzuk apenas margotu gabe eman eta gero, artistak hondo zuri gainean margotutako obra sail handi bat sortu zuenean amaitu zen. Hain zuzen ere, lan horiek finkatu zuten Miróren lengoia, hondo anbiguen gainean flotatzen ageri diren zeinuz osatua.

Erakusketak biltzen dituen 25 urteetako ibilbidean margolariak etengabe landu zituen ideia berriak, bere hastapenetako errealismo magikoarekin has eta konstelazio itxuran ageri diren zeinuz osatutako lengoaiarekin buka. Transformazio horretan nabaria da Miró historiaurreko artearekiko —labar-pinturak, petroglifoak eta estatuatxoak barne— zuen erakarpena. Izan ere, bere ohar-koadernoetan baieztatu zuen hori, adieraziz artearen hastapenetara itzultzea eta bere jatorrizko zentzu espirituala berreskuratzeko zela bere nahia.

Joan Miróren (Bartzelona, 1893–Palma, 1983) obrak miresmena pizten du bere berrikuntza formalengatik, lehen abangoardien testuinguruan garatuak, batez ere dadaismoaren eta surrealismoaren inguruan, eta espresionismo abstraktuaren aitzindaritzat ere hartzen da artista. Gai espiritualez ere interesatu zen Miró, irudipenez eta ametsez liluraturik. Era berean, bere lanaren alderdi politikoak ere nabarmendu izan dira azkenaldi honetan, diktadura frankistaren aurkako bere jarrera irmoa eta garaiko nazionalismo katalanaren aurrean erakutsitako begikotasuna azpimarratuz. Bere ideietako batzuek, esaterako, “pinturaren hilketa” deritzonari lotuta daudenek —1920ko hamarkadaren amaieran aldarrikatutako ideiak, Miró etengabe margotzen ziharduen garai batean— jakin-mina eragiten jarraitzen dute, eta artistaren jarrera hori arte

GUGGENHEIM BILBAO

kontzeptualaren aitzindaritzat hartzen da. Hil zenetik berrogei urte igaro direnean, bere obrak interesa eta miresmena pizten jarraitzen du, bere izaera enigmatikoaren izpi bat ere galdu gabe.

Miróren lana proiektu mito-poetiko eredugarria da, bizitako esperientzia arte bihurtzeko etengabeko eraldaketa. Mirók gaitzetsi egiten zuen abstrakzio puruaren ideia —errealismo tradizionala baztertzen zuen indar berarekin gaitzetsi ere—, eta adierazi zuen bere obretan margotzen zituen marka guztiak zerbait zehatzarekin zetozeela bat, errealitatearen beraren parte den errealitate sakon batean ainguratuta zeudela. Ideia horrek mugimendu surrealistaren aitzindari André Breton poetaren esaldi bat ematen du aditzera, artisten eta poeten barneko mundua kanpoko munduan sartzen duen errealitate absolutu berri bat zegoela baitzioen hark. Miróren miresmena pizten zuen Paul Klee artistak, aldiz, defendatzen zuen bere obra abstraktua zela, baina oroitzapenak biltzen zituela barnean, eta horrek zera adierazten du nolabait, artean, errealitatea oroimenak eraldatutako errealitatea dela azken batean. 1939an, *Cahiers d'Art* aldizkarirako egindako adierazpen batzuetan, Mirók honakoa esan zuen: “Erljio-esentzia edo gauzen zentzu magikoa aurkitzen saiatzen ez bagara, jendeak egun dagoeneko inguruan dituen degradazio-kausa berriak gehitu besterik ez dugu egingo”.

ERAKUSKETAN BARRENA

Mirók Bartzelonan jaso zuen prestakuntza sentimendu nazionalistak ernetzen hasia ziren garai batean. Kataluniako hiriburua hiri kontserbadorea zen orduan, baina 1910eko hamarkadaren amaieran figura gailenak sortu ziren bertan, Paristik etorritako ideia artistiko berriekin konprometituak. Hala, haien artean zeuden Frederic Mompou konpositorea, J. V. Foix poeta eta Miró bera. Bartzelonak lehen abangoardietako zenbait artista adierazgarri hartu zituen, Lehen Mundu Gerran hirian babesa aurkitu zutenak, besteak beste, Francis Picabia, Robert eta Sonia Delaunay, eta Marcel Duchamp, eta Mirók ezagutu egin zituen.

Margolari katalana, garai hartan, Frantziako hiriburura bidaiatzeko irrikan zen, eta lagunekin aritzen zen bertatik iristen ziren berriei buruz hizketan. Parisen askatasun artistiko handia aurkituko zuela uste zuen, baita bere garaiko artista, poeta eta arte-merkataria aurreratuenek inguratuko zela ere; eta halaxe gertatu zen.

1918-1920

Mirók “detailistak” deituriko obrak margotu zituen garai horretan, egikaritzean fintasun eta kontzentrazio handia nabari duten lanak, alegia. Horietan, zuhaitzen eta landareen hostoek kaligrafia ñimiño eta doi-doi itxura dute, eta ekialdeko praktika artistikoak aditzera ematen dituzte. Hasierako obra horietan landa-mundua arkaiko bilakatzen da. Mirók, errealitatea doitasunez irudikatu beharrean, paisaiek eragiten zizkioten emozioak margotu zituen. Objektibotasuna lortzeko borondatea ikuspegi ameslari bihurtzen da hala.

Hasierako garai hartakoa da *Autorretratu* (*Autoportrait*, 1919), oraindik ere errealitate ikusgaiarekin lotutako objektibazio nahi horri erantzuten diona. Obra hori zeharo urruntzen da geroago sortutako bi autorretratuetatik: *Autorretratu I* (*Autoportrait I*, 1937–38) eta *Autorretratu II* (*Autoportrait II*, 1938).

GUGGENHEIM BILBAO

Lehenengoan, irudi garden bat da Miró, eta bere begiek eta daraman alkandorako botoi-zuloek forma astralak edo kosmikoak dituzte; barnean biltzen duen munduaren ezaugarri da bere aurpegia. Bigarren autorretratuan, 1938koan, Miró gaua da; bere buruaren ikuspen purua da, une sutsu batean harrapatua. Obra horretan,ugar horiz inguratutako bi zirkulu gorri espazio beltz batean ageri dira flotatzen, ez mugarik ez horizonterik gabe, izarrak, arrainak, txoriak, tximeletak eta forma abstraktu biomorfikoak inguruan dituztela. Estasia iradokitzen du guztiak.

Margit Rowellentzat, “Miróren bizitza espirituala, hau da, haren barne-paisaia, eguzkia, intsektu bat edo belar-izpi bat bezain erreala zen berarentzat. (...) Bere kontzientzia mito-poetikoak oso gutxitan ikusten zuen errealitatea iragazkirik gabe: edozein egia Egia Absolutua bihurtzen zuen iragazkia”.

1920ko hamarkadaren hasiera

1923an, Mirók bere lagun J. F. Ràfolsi idatzi zion garai hartan margotzen ari zen paisaia berriei buruz hitz eginez: “Lortu dut naturatik behin betiko askatzea, eta paisaiek jada ez dute inolako zerikusirik kanpoko errealitatearekin”, beti ere “botere emozional handiagoa” bilatu nahian. *Barnealdea (Baserritarra)* [*Intérieur (La Fermière)*, 1922–23], hura ere landa-gaiekin lotua, trantsizioko koadro bat da. Tituluak aipatzen duen baserritarra margotzeko, Mirók panpina bat erabili zuen, eta horrek azpimarratu egiten du lanak azkenean eragiten duen harridura-sentsazioa. Margolan horretan oraindik ere argi eta garbi antzematen dira ikusgai dauden elementu guztiak, katu bat eta tximinia bat barne. Pertsonaiaren oin biluzi handiek, hala ere, berretsi egiten dute pieza horretan margolariaren helburua ez zela irudikatze hutsa, eta agerian geratzen da errealitatea itxuraldatzen duen energia lurretik datorrela.

1921ean Miró Parisko bere aurreneko estudioan ezarri zenean, Blomet kaleko 45. zenbakian, kanpoko errealitatearekin loturarik ez duten paisaiak margotu zituen. André Masson bere bizilaguna zen, eta Miróren estudioa artista eta poeta gailenak joan ohi ziren, esaterako Antonin Artaud, Raymond Rousell, Robert Desnos, Paul Eluard, Michel Leiris, Benjamin Péret eta René Char. Haien guztien berrikuntza formalak interesatzen zitzaizkion Miróri; izan ere, logika, topikoak eta tradizioa gaitzesten zituzten, eta bestelako gaiekiko interesa zuten, besteak beste, automatismoa, zatiketaren estetika, ustekabeko eta loturarik gabeko irudien elkartze arbitrarioa, eta testu poetikoen erabilera bisuala eta tipografikoa kaligrametan. Miróren 1920ko hamarkadaren erdialdeko koadroek, pintura onirikoak deituek, egitura narratibo logiko oro suntsitzen dute, eta badirudi gainazaletatik sakabanatuta ageri diren elementu urriak inprobisazioaren emaitza direla, baina haiek prestatzeko zirriborroek kontrakoa frogatzen dute.

Rue Tourlaque

1926-1927 urteetan estudioz eta estiloz aldatu zen Miró. Tourlaque kalean ezarri zen eta bertan jardun zuen lanean 1929ra arte —denbora-tarte horretan Katalunian igarotzen zituen udaldiak— eta sarritan egon ohi zen Jean Arp, René Magritte eta Max Ernest artistekin, bere bizilagun berriein, alegia. Garai hartako bere obren artean formatu handiko paisaia horizontalen sail bat nabarmentzen da, besteak beste, *Paisaia (Oilardun paisaia)* [*Paysage (Paysage au coq)*] eta *Paisaia (Erbia)* [*Paysage (Le Lièvre)*], biak 1927koak.

GUGGENHEIM BILBAO

Horietan, Mirók elementu antzemangarri batzuk margotu zituen, baina estilizatuta. Koadroen hondoak kolore bizikoak dira eta espazio zabalak iradokitzen dituzte, eta margotzeko modu tradizionalak desagertuz doaz haietan, esaterako itzala, bolumenaren eraikuntza edo perspektiba. 1927an ere, Mirók hondo zuriaren gaineko formatu txikiko zenbait margolan sortu zituen, nola diren *Pintura (Eguzkia)* [*Peinture (Le Soleil)*] eta *Pintura (Izarra)* [*Peinture (L'Étoile)*]. Horietan, hondoak pintura-eremu puru bat da, non flotatzen ageri diren izarren eta animalien forma antzemangarri eta estilizatuak, errealitate berri horren ikur gisa.

1930eko hamarkada

1930eko hamarkadan, espresionismoa Miróren obraren ezaugarri nagusi bilakatu zen; horren erakusgarri ditugu *Pertsonaia taldea basoan* (*Groupe de personnages dans la forêt*, 1931); *Pintura basatiak* (*Peintures sauvages*, 1934–38) deitutakoak; lixazko paper gainean egindako pintura-sail bat; collageak; kobre gaineko pintura txikiak, *Gizona eta emakumea gorotz pila baten aurrean* (*Homme et femme devant un tas d'excréments*, 1935); Masonite gaineko margolan-sail oparo bat, 1936ko udan sortua; bai eta 1937an Celotex gainean egindako beste bat ere. Orokorrean, pintura horiek guztiek ezaugarri batengatik bereizten dira: irudi izugarriak ageri dituzte espazio anbiguo eta kezkagarrietan, ziurrenik Espainiako Gerra eta Bigarren Mundu Gerra ekarri zituen egoera politikoak artistari eragiten zion hersturaren eta kezkaren isla.

Mirók tamaina bera zuten Masonitezko panelen gainetan sortu zituen 27 margolanak Gerra Zibila hasi zen udan zehar. Obra horiek aurreratu egin zuten New Yorkeko Eskolaren ekintza-pintura, pinturaren gai bihurtzen duena margotzearen ekintza bera. Bertako irudiak beren sortze-prozesuaren ilustrazio bat dira. Mirók testura nabarmeneko eta kolore bizi eta lurkarako material baten gainean margotu zuen, eta bertan bizkortasunez gainjarri zituen trazu beltzak eta kolore-eremuak, testuretan ere joriak diren materialekin, nola diren mundruna, legarra eta harea. Zenbaitetan gainazala karrakatu edo zulatu egiten zuen. Espontaneotasun handikoak badira ere, gauza zehatzen forma antzemangarri edo iradokitzaile batzuk ikus ditzakegu horietan, esaterako, begiak, buruak eta faloak.

Varengeville-sur-Mer

Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, Miró, Parisen erbesteratua, etxe txiki batera lekualdatu zen Normandiako Varengeville-sur-Mer herrira. Bertan, mural bat margotzeko enkargua jaso zuen. Behin han ezarria, *Txoriaren hegaldia lautada gainetik* (*Le Vol de l'oiseau sur la plaine*) izeneko bost paisaia txiki margotu zituen, inguru hartako lautada zabalak eta haien gaineko beleen hegaldia aditzera ematen dutenak; Mediterraneokoaren oso bestelako paisaia bat.

Varengevilletik, Mirók bere lagun Roland Penroseri idatzi zion azalduz nola sortu ziren *Konstelazioak*: “Margotu ondoren, agoarasetan bustitzen nituen pintzelak eta paperezko orri zurien gainean lehortzen nituen, aurrez pentsatutako ideiei jarraitu gabe. Zikindutako azalera hark gogoa pizten zidan eta formak, giza irudiak, animaliak, izarrak, zerua, eguzkia eta ilargia sortzera eramaten ninduen. Gauza horiek guztiak ikatz-ziriarekin margotzen nituen, kementsu. Konposizioan oreka lortu eta elementu horiek guztiak ordenatu ondoren, gouachearekin margotzen hasten nintzen, artisau edo gizon primitibo baten xehetasunarekin. Denbora asko behar nuen hori egiteko”.

GUGGENHEIM BILBAO

23 konstelazioak 1940ko urtarila eta 1941eko iraila bitartean egin zituen, eta Mallorcan amaitu zituen, bertan ezarri baitziren Miró eta bere familia Frantzia habian zen gerratik ihesi. New Yorken jarri ziren ikusgai 1945ean, Pierre Matisseren galerian jarri ere; Estatu Batuetan erakutsi ziren gerra garaian egindako lehen obrak izan ziren, eta eragin handia sorrarazi zuten. Pintura horiek Mirók sortutako zeinu-lengoiaren ahalmenaren goren maila adierazten dute, eta enfasi berezia jartzen dute irudimenean eta intuizioan, baita adierazpide jatorrizko eta unibertsal bat aurkitzeko borondatean ere.

Konstelazioak eta gero, Mirók denbora-tarte bat eman zuen margotu gabe, familiarekin Mallorcan erretiratur. Egoera aldatu egin zen 1945ean: formatu handiko pintura-sail handi bat egin zuen, berriro ere hondo zuriaren gainean, eta bertan berriz garatu zuen bere zeinu-lengoaia. Sail horretako tituluak dira *Emakumea eta txoria gauean* (*Femme et oiseau dans la nuit*), *Pertsonaia eta txoria gauean* (*Personnage et oiseau dans la nuit*), *Emakumea gauean* (*Femme dans la nuit*), eta batzuk errepikatu egiten dira. Obra gehienek "gau" hitza dute izenburuan, nahiz eta beren hondoak zuriak eta argitsuak izan. 1944az geroztik, Miró zeramikan ere interesatu zen, eta Llorens i Artigasekin jardun zuen lankidetzan.

DIDAKTIKA IN FOCUS: JOAN MIRÓ

Didaktika proiektua erakusketaren osagarri da, eta oraingoan artistaren figura aurkezten du Paloma Chamorro zuzendari zuen *Trazos* programan (TVE) Joan Miró gonbidatu nagusi izan zeneko hiru ataletatik hartutako pasarteen proiektzioaren bidez.

Gainera, esperientzia osatzeko, artistaren irudien binilozko erreprodukzio batzuk aurkezten dira horman, baita bere biografia bat eta bitrina bat ere, Man Rayk Miróri ateratako jatorrizko zenbait argazki erakusten dituen.

Jarduerak

Erakusketaren aurkezpen-hitzaldia (otsailak 8)

Erakusketaren komisario Enrique Juncosak artistaren figuraren inguruko hitzaldi bat emango du erakusketaren kariaz.

Hausnarketa partekatuak

Bisitaldi bereziotan Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek erakusketaren edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte.

- Arte-arduradunen ikuspegia (otsailak 15): Lucía Agirre, Museoko arte-arduraduna.
- Funtsezko kontzeptuak (otsailak 22): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

***Trazos: Joan Miró* telebista-sailaren proiektzioa** (martxoak 10)

Paloma Chamorro kazetariak zuzendutako *Trazos* programaren hiru atal Museoko Entzugelan proiektatuko dira osorik. Horietan, kazetariak oso modu pertsonalean elkarriketatu zuen artista, eta

GUGGENHEIM BILBAO

agerian geratzen dira Miróren grazia eta umorea. RTVEren ekoizpen bat da, 1978an artistak 85 urte bete zituenean egina.

Sormen saioa +18 lpuinen ilustrazioa (apirilak 20)

Marta Altés ilustratzaileak, *El largo viaje de Joan Miró*, haurrentzako biografiaren egileak, ilustrazioaren hasi-masiei buruzko tailerra eskainiko du.

Familiantzako ekintza performatiboa: *Joan Miróren unibertsoa* (apirilak 22 eta 23)

105 aretoa izango da Inesa Markava dantzari eta hezitzaileak Miróren obran inspiratuta sortu dituen mugimendu delikatuen agertokia.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera artistari eskainitako monografia bat argitaratu da. Bertan, erakusketaren komisario Enrique Juncosaren testu orokor bat dago, Paris Nanterre Unibertsitateko Arte Garaikidearen Historiako irakasle Rémi Labrusseren beste bat —Joan Mirók Paris hiriarekin izan zuen harremanari buruzkoa—, eta hirugarren bat, St. Petersburgeko (Florida) Dali Museumeko Chief Curator William Jeffettena, hain gutxitan aztergai izan diren hondo zuriaren gaineko 1945eko pintura handiei buruzkoa. Liburuak erakusketan ikusgai dauden obren ilustrazioak biltzen ditu.

Hasierako irudia:

Joan Miró

Pintura (Eguzkia) [*Peinture (Le Soleil)*], 1927

Olio-pintura mihise gainean

38,3 x 46,2 cm

Eskaintza: The David & Ezra Nahmad Collection

© Successió Miró, 2023

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsak erabiltzeko irudiak
Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920-1945
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera duzue, bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Ematen diren irudiak *Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920-1945* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2023ko otsailaren 10etik maiatzaren 28ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde zuzenetik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

1. Joan Miró

Autorretratua (Autoportrait), 1919

Olio-pintura mihise gainean

73 x 60 cm

Musée national Picasso – Paris. Picassoren eskaintza, 1978. MP2017-28

© Successió Miró, 2023

Argazkia: © RMN-Grand Palais (Musée national Picasso-Paris)/Mathieu Rabeau



2. Joan Miró

Barnealdea (Baserritarra) [Intérieur (La Fermière)], 1922-23

Olio-pintura mihise gainean

81 x 65 cm

Centre Georges Pompidou. Musée national d'art moderne/Centre de Creation Industrielle, 1997an emana

© Successió Miró, 2023

Argazkia: © RMN-Grand Palais/Jean-François Tomasian



GUGGENHEIM BILBAO

3. Joan Miró

Gentleman-a (Le Gentleman), 1924

Olio-pintura mihise gainean

52,5 x 46,5 cm

Kunstmuseum Basel-Schenkung Marguerite Arp-Hagenbach, 1968

© Successió Miró, 2023

Argazkia: Kunstmuseum Basel, Martin P. Bühler



4. Joan Miró

Nekazari katalana gitarrarekin (Paysan catalan à la guitare), 1924

Olio-pintura mihise gainean

147 x 114 cm

Museo Nacional Thyssen-Bornemisza, Madril

© Successió Miró, 2023

Argazkia: Museo Nacional Thyssen-Bornemisza



5. Joan Miró

Pintura (Peinture), 1925

Olio-pintura mihise gainean

146 x 114,3 cm

Eskaintza: David & Ezra Nahmad Collection

© Successió Miró, 2023



6. Joan Miró

Matxinsaltoa (La Sauterelle), 1925

Olio-pintura mihise gainean

114 x 147 cm

Basil & Elise Goulandris Foundation, Atenas

© Successió Miró, 2023



7. Joan Miró

Paisaia (Erbia) [Paysage (Le Lièvre)], udazkena, 1927

Olio-pintura mihise gainean

129,6 x 194,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

57.1459

© Successió Miró, 2023



GUGGENHEIM BILBAO

8. Joan Miró

Pintura (Pertsonaia: Fratellini anaia) [*Peinture (Personnage: Les Frères Fratellini)*], 1927

Olio-pintura mihise gainea

130 x 97,5 cm

Fondation Beyeler, Riehen/Basel, Sammlung Beyeler

© Successió Miró, 2023

© Argazkia: Robert Bayer



9. Joan Miró

Pintura (Txoriak) [*Peinture (Oiseaux)*], 1927

Olio-pintura mihise gainea

130 x 97 cm

Eskaintza: The David & Ezra Nahmad Collection

© Successió Miró, 2023



10. Joan Miró


Pintura (Eguzkia) [*Peinture (Le Soleil)*], 1927

Olio-pintura mihise gainea

38,3 x 46,2 cm

Eskaintza: The David & Ezra Nahmad Collection

© Successió Miró, 2023



11. Joan Miró

Pintura (Peinture), 1934

Olio-pintura mihise gainea

97 x 130 cm

Fundació Joan Miró, Bartzelona. Dohaintza: Joan Prats

© Successió Miró, 2023



12. Joan Miró

Txorien kantua udazkenean (Le Chant des oiseaux à l'automne), Iraila, 1937

Olio-pintura Celotex gainea

212 x 91 cm

Coleção de Arte Contemporânea do Estado, honi epe luzerako maileguan utzia:

Fundação de Serralves - Museu de Arte Contemporânea, Porto

© Successió Miró, 2023

Argazkia: © Filipe Braga



GUGGENHEIM BILBAO

13. Joan Miró

Pintura-poema (Izar batek emakume beltz baten bularra laztantzen du) [*Peinture-poème (Une Étoile caresse le sein d'une négresse)*], 1938

Olio-pintura mihise gainean

129,5 x 194,3 cm

Tate: 1983an eskuratua

© Successió Miró, 2023

Argazkia: © Tate/Tate Images



14. Joan Miró

Pintura (Txoriak eta intsektuak) [*Peinture (Oiseaux et insectes)*], 1938

Olio-pintura mihise gainean

114 x 88 cm

Albertina, Viena – Sammlung Batliner

© Successió Miró, 2023



15. Joan Miró

Emakumea eta txoriak (Femme et oiseaux), 1940

Gouachea eta olio-pintura paper gainean

38 x 46 cm

Eskaintza: The David & Ezra Nahmad Collection

© Successió Miró, 2023



16. Joan Miró

Emakumea eta txoria gauean (Femme et oiseau dans la nuit), 1945

Olio-pintura mihise gainean

146 x 114 cm

Fundació Joan Miró, Bartzelona. Bilduma pribatuko gordailua

© Successió Miró, 2023

